



## **2018eko OTSAILAREN 20 KO BILKURAKO AKTA**

Bilkura: Ohikoa

Eguna: 2018/02/20

*Ordua: 19.00etan*

*Deialdia: Lehenengoa*

Bilduak:

Olatz Iriarte Argaya. Alkatea

Luis Lopez Garcia Uceda. Zinegotzia

Ane Garmendia Gorostidi. Zinegotzia

Jokin Garmendia Etxeberria. Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

### GAI ZERRENDA

- 1.-2018-01-23 Bilkurako akta onartzea hala balegokio .
- 2.-Udaletxeko argi indarraren instalazioa dela eta legalizatu ahal izateko egin behar diren lanen aurrekontuaren berri ematea
- 3.-Herriko guraso elkartearen balorazioa , 2016 eta 2017 urteari dagokiona eta bide batez dagokion diru laguntza eskaera onartzea.
- 4.-2018 urterako baserri bidean berrikuntza lanetarako diru laguntzaren deialdia ematea eta dagokiona erabakitzea .
- 5.-Galderak eta eskaerak .

### **1.-2018-01-23 BILKURAKO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO .**

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2018-01-23ko Bilkurako aktaren izenburuak irakurri eta komentatu dira . Alkateak galdetzen zerbait zuzentzeko ikusten den . Mahaikide guztiak ados agertu dira eta dagoen bezala onartuta.



## **2.-UDALETXEKO ARGINDARRAREN INSTALAZIOA DELA ETA LEGALIZATU AHAL IZATEKO EGIN BEHAR DIREN LANEN AURREKONTUAREN BERRI EMATEA**

Iberdrolak kontagailu berria jarri zituenetik , Udaleko argi indarraren udaleko kontagailua erori egiten zen , kontratua zegoen argi indarraren potentzia 6,6 kwetakoa zelako eta gutxi bezala geratzen zelako . Honen ondorioz , Ika elektrizitatea eta Aizkorpe elektrizitatearekin harremanetan jarri gara , egoerari irtenbidea bilatzeko . Proposamen desberdinak egin dituzte eta proposamen horien aurrekontuak ere eskatuta daude .

Halere , Iberdrolarekin zuzenean harremanetan jarri eta kontagailu egokia bat jartzea lortu dela 19,80 kwetakoa oraingoz .Aurrerantzean gehiegiko potentzia dela ikusten bada ere potentzia murrizteko aukera izango da.

Horregatik , ERABAKI DA :

- 1.-Elektrizitate etxeei eskatu zaizkien aurrekontuak bertan behera uztea .
- 2.-Elektrizitate fakturak ondo ikustea , eta ondoren ondo likidatzea.
- 3.-Eta , orain dagoen potentziarekin jarraitu behar den edo ez kontsumoaren arabera aztertzea.

## **3.-HERRIKO GURASO ELKARTEAREN BALORAZIOA , 2016 ETA 2017 URTEARI DAGOKIONA ETA BIDE BATEZ DAGOKION DIRU LAGUNTZA ESKAERA ONARTZEA.**

Herriko guraso elkartearen ordezkariak 2016 eta 2017 urteetan antolatutako ekintzen txostenak bideratu ditu udal honetara ,aztertu , eta egindako ekintzen inguruan dagokion laguntza bideratze ondorioetarako .

**2016 urtean egindako ekintzak izan dira :**

TXORIMALO TAILERRA. KOSTURIK GABE

UDAKO LUDOTEKA 2.167,36€

SAGAR BILKETA , KOSTURIK GABEA

LARRETAKO YOGURREN TAILERRA .KOSTURIK GABEA .

GABONETAKO PLAZA APAINDU ETA KANTU ENTSEGUA, 100 €

ZEZENA EROSKETA 165,00 €



BESTELAKO GASTUAK 125,09 €

GASTUAK GUZTIRA .....2557,45€  
SARRERAK GUZTIRA .....1.889,00 €

Udalak lehen egindako ekarpenak izan dira :  
Udalekuetarako .....1000,00€

Orain aurkeztu den txostena ikusita , ERABAKI DA .

2016 urtean egindako ekitaldien artean , udalak udalekuen barruan BIZI BIZIKI irteera laguntzea erabaki du , bere kostua 189 euro izanik .

**2017 urteko ekitaldiak hauek izan dira :**

KORRIKA TXIKI , kostua 65,48 €  
BATIDOEN TAILERRA , kostua 37,96 €  
KUTXA EKOGUNERA IRTEERA , kostua 153 €  
GURE ESKU DAGO , kostua 198 €  
UDALEKUAK , kostua 2673,30€  
SAGAR BILKETA , kostua 71,47 €  
ESKULAN TAILERRA SAN MARTIN . kosturik gabea  
MAGIA IKUSKIZUNA ETA MERIENDA .KOSTUA 69,10 €  
GABONETAKO PLAZA APAINDU ETA ENTSEGUA . kostua 26,40€  
GABONETAKO KANU EGUNA . kostua 221,46€  
BESTELAKOAK , kostua 71,25

GASTUAK GUZTIRA .....3.587,42€  
SARRERAK GUZTIRA ..... 5.688,84 €

Udalak lehen egindako ekarpenak izan dira :  
Udalekuetarako .....1.000,00€

Orain aurkeztu den txostena ikusita , ERABAKI DA .

2017 urtean egindako ekitaldien artean , ondorengo ekitaldiak laguntzea:  
.-korrika txikiko materiala ....12,80 €  
.-Ekogunerako sarrerak .....153,00 €



.-Ikurrinak .....	39,00€
.-Igeldoko sarrerak .....	271,70€
.-Igeldorako autobusa .....	385,00 €
<b>Guztira .....</b>	<b>861,50€</b>

#### **4.-2018 URTERAKO BASERRI BIDEAN BERRIKUNTZA LANETARAKO DIRU LAGUNTZAREN DEIALDIA EMATEA ETA DAGOKIONA ERABAKITZEA .**

Gipuzkoako Lurralde historikoko landa bideetarako diru laguntzen oinarri arautzaileak eta bide batez deialdia egin dira , 2018eko otsailaren 15eko Aldizkari Ofizialean .

Diru laguntzen deialdiaren babesean , Baliarraingo udalak , 2018 urterako honako bide hauen zatiak aurreikusten ditu burutzea .

#### **Irabi baserrira eta bere nekazal hustiategietara**

1.-Interesa: Ondorengo baserri eta Nekazaritza jarduerarako sarbideak daude aipatutako bide honetatik Irabi baserrian bi bizitza eta Irabi baserriaren nekazal ustiakuntzarako hiru instalazio.

2.-Bidearen xedea : Bidearen egoera oso txarra da, Irabi auzora doan herri bidetik ur asko joaten da eta urak bildu gabe daudenez kalte handiak sortzen ditu zoladuran eta inguruko lursailetan.

3.-Nekazaritza lan unitateen neurketa: Udalean ez ditugu jarduera ekonomikoen lan unitateen balioak. baina kontutan hartu behar diren baserria da: IRABI S.C. BASERRIA

4.-Distantzia, bidea dagen lekutik udaletxera .

Irabiko bidearen muturretik udaletxera , batz bestea 0,41 km daude .

5.Kokagunea: Bidea kokatua dagoen gunea G2 da .

Aurrekontua: beza barne 24.600,00€

#### **San Juan bidearen zatia .**

1.-Interesa: Ondorengo baserri, etxe eta Nekazaritza jarduerarako sarbideak daude aipatutako bide honetatik: Abali goena, Abali zelai goikoa, Abali



zelai behekoa ,Abali barrena, Abali, Abali bitarte, Abali maritxunea, Saletxe, San belardi, Mimendi bi bizitza, Lopetedi, Lopetedi berri. Eta hauetaz gain , eremu honetan dauden zelaien ustiakuntza nagusia Irabi baserriak egiten du .Eta neguan artzainak ibiltzen dira eremu horretako larreetan .Beraz , hamahiru baserri zenbatzen dira .

2.-Bidearen xedea : Bidearen egoera oso txarra da , zenbait momentutan ibilgailu eta traktorearekin joateko arriskua dago , bidearen zoladura egoera txarrean eta zenbait puntutan ebakita dagoelako .

3.-Nekazaritza lan unitateen neurketa : Udalean ez ditugu jarduera ekonomikoen lan unitateen balioak . baina kontutan hartu behar diren baserriak dira :

Abali goena, Abali zelai goikoa, Abali zelai behekoa ,Abali barrena, Abali ,Abali bitarte, Abali maritxunea, Saletxe, San belardi, Mimendi bi bizitza, Lopetedi, Lopetedi berri. Eta hauetaz gain, Irabi S.C. jarduera da eremu honetan ibiltzen dena .

4.-Distantzia, bidea dagan lekutik udaletxera .

San Juan bidearen muturretik udaletxera, batz bestea 2,4 km daude .

5.Kokagunea: Bidea kokatua dagoen gunea G2 da .

6.-Aurrekontua: beza barne 24.500,00€

Eta ondorioz, ERABAKI DU

2018 urtean aipatutako bi bideentzako diru laguntza eskatzea .

## **5.-GALDERAK ETA ESKAERAK .**

Ez da galderarik eta eskaerarik aurkeztu .

Eta besterik ezean bilera amaitutzat eman zuen alkateak , gaueko 20,15etan .

Alkateak

Idazkariak